

I

KRISTO ITZULI DA, BERE EGIA DAKAR

HITZAURREA

Lehendabizi azaldu nahi dut zergatik erabili dudan 'Bitartekari' ('Recorder') hitza nire benetako izenaren ordeaz.

Nire gogamenean inoiz ez dut zalantza izpirik ere izan, GUTUN hauek idatzi bitartean Kristok emanak zirela. Horretaz hain seguru sentitzen nintzelako arrazoiak, ene biografia laburrean eman ditut.

GUTUNOK idatzi ziren bitartean, argi eta garbi esan zitzaidan anonimatuan geratu behar nintzela – zeren KRISTOREN GUTUNAK berez nabarmendu behar baitira. Jendeak berak erabaki behar du GUTUNAK egiaren oihartzuntzat hartzen dituen ala faltsuak direla nabaritzen duen. Jasotakoa idaztea zen nire egitekoa; gero zabaltzen saiatzea publikoak aztertu ahal izateko, eta ondoren gertatuko zena GUTUNEN irakurlearen eta Kontzientzia Kristikoaren artekoa izango zen zehazki.

GUTUNEK irakurlearen gogamena eta Gogamen Kristikoa elkartuko zituela hitz eman zuen Kristok; hitzen atzean dagoen sakoneko esanahi ezkutua ulertzeko laguntza jasoko zela.

Jende askok komunikatu du harreman horren esperientzia. Gizaki anitz pertzepzio berriaren eraginaz jabetu dira.

Hortaz, negozio bateko transakzio batean idazkariaren izenak garrantzirik ez duen bezala, nire izenak eta nortasunak ere ez dute inportantziarik. Kristo, benetakoa, kontzientzia espiritualean Orekaren atarietaraino igo dela sentitu ahal izatea da garrantzitsuena irakurlearentzat; hain zuzen, banakotasuna gordez igo da, banakotasunaren munduarekin kontaktuan jarraitzeko.

II

Bigarrenez, batzuetan GUTUNEK hartzen duten formatuaz desadostasunak egon dira

Azaldu nahi nuke, Kristok ene gogamenean hitzak eta irudiak sortu ahala, beharrezkoa zela nik nekusana hitzetan jartzea. Neurri batean Kristoren emozioak ere nabaritu nituen une haietako gertaerak azaltzean. Orduko bibrazioetara jaistean, Kristo momentu haietan sartu eta nire gogamenaren bidez transmititu zituen. Ezinezkoa zen GUTUNAK idazkera arrunta edo letra etzana soilik erabiliz idaztea. Maiz, ene gogamenera pertzepzio miragarri bat etortzean zera galdetzen nion neure buruari: 'Nola komunikatuko dut hori?' GUTUNAK irakurtzean jakingo duzu zer esan nahi dudan.

Beraz, Kristoren gogamenetik nirera sekulako baieztapen bat edo etorria zela erakusteko, letra etzana, letra lodia eta maiuskula erabili behar izan nituen. Batzuk kexatu dira ez-ohiko formatu honek irakurketaren jariora oztopatzen duelakoan. Baina hortxe dago kokka! GUTUN hauek ez dira besterik gabe irakurtzeko, AZTERTZEKO baizik. Eta horrek esan nahi du hitzen jariora atxikitzen duten letra lodiko hitzei so egin behar diezula, eta komunikatu nahi dizutenaz PENTSATU beharra dagoela. Une oro gogoratu beharra dago Kristo, zure giza adimenarekin bat egiten saiatzen denean, mundu honetako zure bizimoduko esperientzietatik askoz goragoko egiak ari dela kontatzen. Mugagabeko dimentsioan sartu behar duzu diotsuna uler dezazun.

Beraz, formatu arraroa duen paragrafoa aztertzen ordu erdi bat ematen baduzu, ondo probetxatutako ordu erdia izango da; baldin eta, pixkanaka, gogamena zabaltzen baduzu zure gaurko pentsaeratik at dauden aukera berrietara. Iluminazioa eskatuz zure kontzientzia Kontzientzia Kristikorantz eramaten saiatzen bazara, zalantzarik gabe jaso egingo duzu. Beharbada une honetan ez, baina -DZAST!- gutxien espero duzunean erantzuna zure gogamenean sartuko da argi-izpi bat bezala, eta JAKIN JAKINGO duzu: 'HARA, HORI DA!-HORIXE DA BENETAKO ERANTZUNA'

III

KRISTO ITZULI DA, BERE EGIA DAKAR

Aurkezpena

Zera dio:

‘Duela 2000 urte, ‘JESUS’ izenarekin Palestinan izan nintzenean eman nituen irakaspenen inguruan egin diren interpretazio okerrak zuzentzera etorri naiz. ’

Honako hau ere dio:

‘Jendea sekulako krisi mundial baten atarian dagoelako, biziraupenarentzat ezinbestekoa da **NI, KRISTO**, entzun nahi duten guztiengana heltzea. Gutxi dakizu Sortzearen benetako prozesuez, zeinetan zeuk garrantzi handiko eginkizuna baituzu. Behar-beharrezkoa duzu horiek argi ulertzea; gizateria guztiarentzat, goragoko ikuspegi bat ezartzeari ekiteko gai izan zaitezten. Nire kontzientzia espiritualak ez dauka inola ere giza era hartzerik; zuzenean zuri hitz egin ahal izateko, gogamen esaneko eta harkor bat desprogramatu eta prestatu dut, nire Egia jaso eta hitzez adierazteko. Bera nire ‘Bitartekaria’ da.’

Bitartekaria: Zuk **KRISTOREN GUTUNAK** irakurri aurretik litekeena da jakin nahi izatea nola gauzatu zen kontzientziako ariketa espiritual hau transmititzea. Ni Kristoren bitartekaria izan ahal izateko aurreprestakuntza orain 40 bat urte hasi zen; ni kristau konprometitua izanik, eta abeltzain bezala arazo larriak neuzkalarik laguntza eskatu nion Kristori. Ustegabeko indar handiko erantzuna jaso nuen eta horrek dogma erlijioso oro berraztertzeri eta bertan behera uztera bultzatu ninduen. Iluminazioa gero etorri zen argi eta garbi; eta, lan eta ikasketa berrietarantz jo nuen, jendearekin harremanetan jarritz enpresa bat sortu nuen eta horrek fruituak eman zituen. 7 urtez arrakasta eta zorion handia izan nuen. Ulermen espiritualetan hazteko, gero giza esperientzia traumatiko asko izan nuen. Eta sufrimendu askoren ondoren, oinaze handiz, beroietatik ikasten joan nintzen eta modu espiritual batez gainditzea lortu nuen.

Gau batez, orientabidea eskatzeko otoitzari erantzunez, Kristoren Presentzia errealitate bihurtu zen, eta bere nortasunaren froga ukaezina eman zidan. Ordu batez hitz egin zidan, eta Maitasun Kosmikoaren uhin indartsuak bidali zizkidan gorputzean barna; eta labor labor azaldu zidan zer irakatsiko zidan eta azkenean zer lortuko nuen. Bi aste geroago, Jainkoarekiko esperientzia transzendental batean zehar barneratu ninduen; eta bat bateko sendatze batzuetan sendatzaile eta tresna izatera heldu nintzen.

1966.etik 1978.era bitartean, nire bizitzako une garrantzitsuetan, nire galderei erantzunez,

IV

Kristok printzipio espiritual-zientifikoak irakatsi zizkidan, orain bere Gutunetan azaltzen dituen bezala. 1983.etik 1994.era arteko gertaerak deskribatzen zituzten ikuspenez beteriko gaua esperimentatu nuen 1975. urtean, eta den-denak benetan gertatu ziren. Berriz ere esan zidan etorkizunean zeregina izango nuela.

Era askotako gorabeherak izan ondoren, beti arinduak nik neukan Kristorekiko konexio indartsuei esker eta neukan ulerkuntza eta 'kausa lehenarekiko' esperientzia pertsonal sakonari esker, orain bizi naizen etxera ekarria izan nintzen. Hemen nire bizitza gero eta bakartiagoa izan da azken 20 urteotan, batzuetan Kristorekiko hurbileko kontaktu argian eta beste batzuetan utzita nire sinesmena eta pazientzia indartzeko garai espiritual lehorretan. Azken lau urteotan arazketa mental eta emozional batetik igaro naiz, eta barruko bake eta alaitasun perfektuaren helburua lortu dut.

Urratsez urratseko arazketa garden prozesu batetik igaroarazi nau Kristok. Ni barruan hutsik nengoelarik, malgu eta harkor, -Ahotsa diktatzen hasi zen eta Gutunak forma hartzen hasi ziren. *Gutun hauek, erabat, Kristoren beraren lana dira.*

Gutunetan dagoen ezer ere ez da beste literatura batetik eratorri, nahiz eta azken urteotan zenbait idazlek, jakina, asko hartu duten Kristoren Kontzientziaren Irradiazioaren Egiaren inspirazio beretik. Bere Kontzientziarekin harmonian dauden guztiek bedeinkazio handiak jasotzen dituzte. NI 'Bitartekaria' baino ez naiz----besterik gabe.



Aurkibidea

1. Gutuna. Gutun hauek diktatzera itzultzeko arrazoiak aipatzen ditu Kristok. Pentsamendu eta ekintzen bidez gizakiak bere gorabeherak sortzen dituela dio. Azaltzen du zergatik bere benetako misioa lurrean ez zen behar bezala gauzatu. 'Jainkoaren aurka bekatu egiterik' ez dagoela dio, eta ez dela ulertu gure benetako **Izatearen Iturria**. Basamortuko 6 asteak deskribatzen ditu, eta benetan zer gertatu zen –zer ikasi zuen, eta ezagutzak nola aldarazi zuen errebelde izatetik Maisu eta Sendatzaile izatera.

2. Gutuna. Lurrean eman zuen Bizitzaren historiak jarraitzen du; Nazaretera amarenera itzultzea eta jaso zuen harrera. Bere lehen sendatze publikoa eta ikaragarritzko erreakzioa. Dizipuluen aukeraketa. Bere benetako irakaspenak.

3. Gutuna. Bere bizitzako gertakari gehiago: irakaspenak, gurutzilletak bere lurreko denbora etengo zuela jakitea; Judutar Buruzagi Erlijiosoen haserrea eragiteko egin zituen gauzak; 'Azken Afarian' benetan gertatu zena eta esan zena, apostoluen jarrera, 'Igokundeari' buruzko egia.

4. Gutuna. Kristok Palestinan emandako irakaspenen hariari jarraituz zera dio: Berak, Mahomak, Budak, eta gainerako Maisuek espiritualki garatzen jardun dutela, denek **KONTZIENTZIA KRISTIKORAINO** igo arte. Kristo mintzo da erlazio sexualari buruzko egiaz, eta dio gizonen eta emakumeen arteko jarrera azkenean aldatu egingo dela. Garapen espirituala egongo dela, eta gaitasun espiritual berriko haurrak jaioko direla.

5. eta 6. Gutunak. Kristo hasten da Sortzearen egiazko prozesuak azaltzen. Zientziak eta erlijio-doktrinek sinetsi dutenaz mintzo da eta arbuia egiten du. **IZATEAREN EGIA** definitzen du. Giza egoari buruzko egia aipatzen du; -hots, egoa lurreko banakotasunarentzat bitartekoa dela dio, eta beraz beharrezkoa, baina oinaze ororen iturria ere badela.

7. Gutuna. Harreman sexualari buruzko egia azaltzen du Kristok. Zer gertatzen da benetan espiritualki eta fisikoki? Nola jaiotzen dira haurrak hainbat kontzientzia mailatan? Gizonaren eta emakumearen tokia azaltzen du munduaren ordenean.

8. Gutuna. Kristok gizon eta emakumeen errealitatea azaltzen du, nola bizi **EXISTENTZIAREN LEGEEN** arabera, eta nola sartu harmonia bedeinkatuzko egoera batean. Egoera horretan gauza guztiak ugaritasunez hornitzen dira, oasuna berreskuratzen da, alaitasuna gogamenaren egoera naturala izatera heltzen da. Gizaki bakoitza bedeinkaziozko barne-egoera horretara irits daiteke, eta orduan bakea araua izan daiteke.

9. Gutuna. Kristok gainerako GUTUNETAKO hari-muturrak lotzen ditu, eta jendeari argi eta garbi diotso nola gainditu egoa; nola irabazi benetako autoestimua eta nola espermentatu barneko **BAKE** perfektuaren zoriona. Arrazismoaren gaiaz mintzo da, eta maitasunezko mezu pertsonala ematen die GUTUNEK erakarritako guztiei.